

## Unai San Andres Sanz-ek bere Tesia irakurri du

2015/04/21

Apirilaren 16an, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Unai San Andres Sanz Doktoregaiak bere doktoretesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitateko Ikastetxe nagusiko Areto Nagusian. Tesiaren izenburua Thermal Optimization of Permanent Magnet Synchronous Machines eta tesi zuzendaria: Gaizka Almandoz. Gainera Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen. Honetaz gain, Europako Doktore aipamena jaso du.

Epaimahaia horrela osatu zen:

- Mahaiburua: David Alan Staton (Motor-design Ltd.) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Ana Julia Escalada Aguado (ORONA) Dk. And.
- Mahaikidea: Rafal Wrobel (University of Bristol) Dk. Jn.
- Mahaikidea: José Ignacio del Hoyo Figueras (EHU-UPV) Dk. Jn.
- Idazkaria: Fco. Javier Poza Lobo (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Makina elektrikoaren azterketa termikoa geroz eta alderdi garrantzitsuagoa bilakatzen ari da diseinu optimizatuen bilaketan. Aplikazioek makina konpaktuagoak, arinagoak eta eraginkorragoak eskatzen dituzte eta honek optimizazio termikoa behar du.

Tesi honetan simulaziorako erreminta aurreratuak garatu dira (eredu analitikoak eta CFD simulazioak) eta ondoren, diseinurako metodologia batean txertatu dira makina lehiakorren diseinuak lortzeko, kostu eta prestazioei dagokienean.

